

Monagillo, tiple, banderadun, aingeru eta beste



**E**lizkizunak zelako inportantzia eukain garai batian sinistu be eleukie egingo gaur eguneko gaztiak. Urte gehixena egoten zan liturgiak eta elizako jaixak markauta: Gabonak, Garizumia, Pazkua, Asentzio, Trinidadia, Korpustiak; San Josiak, San Bernabe eguna, San Juanak, San Pedruak, Madalenak, San Ignaziuak, San Migelak, San Andresak; Andra Marixa Martiko, Agostuko Andra Marixak, Arantzazuko Ama Birjiñia, Errosarixuak, Pilarikia, Kontzesiñuak; mezak, bezperak, bederatzirrenak, misiñuak, ejerzizizuak, lehenengo eta bigarren komuniuak, maiatzeko lorak; eta jai-egunetatik aparte, umien mezia eguen guztietan, hillaren lehenengo astian izan ezik, orduan ebaikutzian izaten zan-eta.

Gaurko fotografixan agiri diran neska-mutillak, seguruenik bigarren komunio-eguneko elizkizuna dotoreketako, parte hartu euen monagillo, koruko tiple, kofradixetako banderadun eta aingeruak dira: mutiko esklabinadunak monagilluak dittugu eta roketedunak, berriz, tipliak; azkenengo honeik Korpus eguneko prozosiñuan be erropa horreixekin urteten euen. Fotografixiak berrogeita hamar bat urte eukiko dittu. Goititik behera eta ezkerretik eskumara hona hemen euren izen-abizenak.

Goixenian: Mari **Odriozala** eta Pedro Mari **Igartua**.

Hirugarren illaran zutik: Jabier **Mugartza**; Jexux **Altube**; Joxe Luis **Igartua**; Iñaxio **Bartolomé**; Jabier **Elortza**; eta Rafael **Ugarte**.

Bigarren illaran zutik: Amparo **Biziola**; Iñaxio **Astigarraga**; Jerardo **Elortza**; Antonio **Bikuña**; Fernando **Letamendi**; Karlos **Agirrebengoa**; Antonio **Mugartza**; eta Rosarito **Altube**.

Beheko illaran jarritik: Enrique **Guridi**; Bixente **Elgero**; Jesus Mari **Igartua**; Jesus Mari **Guridi**; Jabier **Billar**; eta Esteban **Igartua**.

Belauniko: Milagritos **Agirrebengoa** eta Belen **Kortabarria**.

J. E.

Argazkixa Belen Kortabariak itxi dosku eta argibidiak, berriz, Belenek berak, Amparo Biziola, Maixabel Elortza, Andina Arrazola, Antonio Bikuña eta Jabier Markuletak emun doskue.



Loreak  
•  
Landareak  
•  
Keramika  
...  
Portu Kalea  
Tfnoa: 78 22 41

URTXIN Loradenda



**SAN MIGEL**  
Koperatiba

Supermerkatua: Kale Barria, 8.  
Tfnoa: 78 12 17